

Fundación
BBVA

**X. Musika Garaikideko
Konzertu Zikloa**

Bilbao
2019-2020

United Instruments of Lucilin

Fundación BBVA
San Nikolas Eraikina
Bilbao

2020
**10
MAR**



BBVA Fundazioa

BBVA Fundazioak ezagutza zientifikoaren eta kultura-sorkuntzaren inguruan antolatzen du bere jarduera. Alde horretatik, gizarteak musikaren arte-adierazpena eskuratzen duen modu desberdinetatik barrena egindako ibilbide osatu baten antzera antolatzen du bere Musika egitaraua. Era horretan, obra berrien sorkuntza sustatzen du konposizio-enkarguen bidez, eta horiek zaintzea eta ezagutaraztea ahalbidetzen du punta-puntako zigilu eta interpreteekin elkarlanean egindako grabazioen bitartez. Zuzeneko musika sustatzen du urteko kontzertu-zikloen bidez, eta doakoak direnez, gaur egungo errepertorioan erreferentzia bilakatu diren ensemble eta bakarlariek jartzen ditu publikoaren esku. Hitzaldi-zikloak antolatzen ditu eta hainbat argitalpen kaleratzen ditu egileen, instrumentujotzaileen eta zuzendarien lana hobeto ulertzeko, edota konposizio-aldi jakin batzuen azterketan sakontzeko.

Musikari gazteen heziketa sustatzen du Reina Sofía Musikako Goi Eskolarekin garatzen dituen programei esker, eta ikertzeko, musika-ondarea berreskuratzeko eta sorkuntza-lan guztiz berritzaileak burutzeko proiektuak garatzen ditu Musika eta Opera arloko Leonardo Beken bidez.

Orkestren kudeaketari buruzko jardunaldi espezializatuak antolatzen ditu; estatu osoko opera-antzoki eta musika-egitura nagusiekin elkarlanean dihardu —hala Teatro Realekin nola Gran Teatre del Liceurekin, baina baita Madrilgo Orkestra Sinfonikoarekin eta Operaren Lagunen Bilboko Elkartearekin ere—, eta horiei esker, goi mailako kontzertuak eta opera-programak eskaintzen ditu; eta bikaintasuna aitortzen du Musika eta Opera alorreko Ezagutzaren Mugak BBVA Fundazioaren Sariaren bitartez eta Espainiako Orkestra Sinfonikoen Elkarte-BBVA Fundazioaren Konposizioaren Sariaren bitartez.



Fundación **BBVA**

Interpreteak

United Instruments of Lucilin

Sophie Deshayes, flauta
Max Mausen, klarinetea
Olivier Sliepen, saxofoia
Pascal Meyer, pianoa
Guy Frisch, perkusioa
André Pons-Valdès, biolina
Danielle Hennicot, biola
Ingrid Schoenlaub, biolontxelo

Egitaraua

LEHEN ZATIA

Tristan Murail (1947)
Feuilles à travers les cloches

Clara Olivares (1993)
Hagi

Helmut Lachenmann* (1935)
Trio fluido

BIGARREN ZATIA

Julián Ávila (1982)
Quasicristal III

Claude Lenners (1956)
Zenit

Fausto Romitelli (1963-2004)
Domeniche alla periferia dell'impero
- I. Prima domenica

Israel L. Estelche (1983)
Trayecto líquido

* BBVA Fundazioa Ezagutzaren Mugak Saria 2010an, Musika eta Operaren arloan

Zikloaren koordinazioa

Gabriel Erkoreka

Tristan Murail

Feuilles à travers les cloches

Tristan Murail da espektralismoaren sortzaile eta pentsalari nagusietako bat. Konposizio-eskola horrek «soinuen barnealdera bidaiatzea» proposatzen zuen, «horien barne-egiturak behatzeko». Notazio tradizionalak sinetsarazi nahi digunaren kontrara, soinua izate egonkor eta objektibo bat ez dela oinarritzat hartuta, «baizik eta indar-eremu bat, indarrak zein bere garapen partikularraren bila daudena», Murailek —espektografoak eta sonogramak edo oraintsuago grabagailuak eta analisi digitaleko gailuak erabilia— soinuaren behaketatik eta azterketatik ateratako gogoeta teorikoak jaso zituen bere obretan. «Hala, soinuaren analisisan oinarritzen den konposizio-teknika bat garatu dezakegu», diosku Murailek, «eta soinuaren barne-indarrak konpositorearen lanaren abiapuntu gisa baliatu ditzakegu».

Feuilles à travers les cloches (Hostoak ezkilan artetik) obra Claude Debussyren *Images* sortako bigarren koadernoko pianorako pieza baten, *Cloches à travers les feuilles* (Ezkilak hostoen artetik), aipamen zuzena da. Hala, izenburuko hitzen ordena aldatuta, Murailek giro debussyarra ere alderantzikatzen du: Debussyren lanean, ezkil hotsak aditzen ziren haizeak laztandutako hostoen mugimendua itxuratzen duen testura merkuralaren

artetik, Murailenean, aldiz, ezkilak lehen planoan daude (piano-akordez eta biolinaren *pizzicati*-ez sortuta) eta hondoan sentitzen da hostotza (tremoloak, *flutterzunge*, harmonikoak eta beste hainbat teknika, xuxurlak antzeratze-ko). Bi soinu-planoak zein bere aldetik doaz, harik eta piezaren erdi aldera, klimax bortitz batean talka egiten duten arte. Talkarekin, konposizioaren harmonia-espektroa alderantzikatu egiten da: pianoa ezari-ezarian goi-erregistrotik irteten hasiko da, teklatuko notarik baxuenetara iritsi arte. Une horretan, pieza «ilunabar bat balitz bezala» amaituko da, Debussyren ateraldi ezaguna gogora ekarriz: «rien n'est plus musical qu'un coucher de soleil!»

Clara Olivares

Hagi

Estrasburgon jaio zen, eta espainiar jatorriko familiakoa da; Clara Olivares dugu Frantziako zirkuitu garaikidean gehien nabarmentzen ari den ahots gazteetako bat. Estrasburgon, Mark Andre eta Philippe Manoury izan zituen irakasle, eta egun Kaliforniako Berkeley Unibertsitatean ari da ikasten, Franck Bedrossian, Carmine Cella eta Ken Ueno gidari dituela. Ibilbidearen hasierako etapa besterik egin ez badu ere, Olivaresen musika Europako jaialdirik garrantzitsuenetako batzuetan aurkeztu da jada: Estrasburgoko Musica,

Grazeko Impuls, Parisko ManiFeste... Gainera, musika-antzerkian interesatuta dago: lehen opera, *Mary*, hogeita hiru urte eskasekin konposatu zuen, eta 2019an Aix-en-Provenceko Jaialdiko operaren akademiak hautatu zuen.

Hagi, 2019an idatzi zuen United Instruments of Lucilin taldearen enkar-guz. Japoniako Yamaguchi prefeturan kokatuta dagoen kostako hiri txiki bati egiten dio aipamen. Bertan eman zizkion azken ukituak piezari, Japoniako soinu-esperientziek inspiratuta: «Mikrotonoa erabiltzea, *kabukian* eta *noh* antzerkian bezala, baita zeremonia budistetako ezkilak —triangeluaren bidez iradokiak, eta tinbal-nota luzeen agerraldien bidez— eta testura luze eta zaratatsuak ere —Hagiko zeramikek denboraren eta beroaren eraginez egiten duten krakatekoaren omenez—».

Elementu horien eraginez sortu zen hizpide dugun obra; saxofoi altuaren lantu luze bat, inflexioak eta azentuak lauokotearen gainerako kideen soinu-geruzen ondoan jartzen direna. «Lehen minutuetan saxofoiak bere kantua garatzen du bigarren mailan dauden gainerako instrumentuekin elkarrizketan, eta ondoren soinu-konbinazioak sortzen ditu polaritate askotarikoen inguruan», dio Olivaresek. «Duetoak agertzen dira, baina saxofoiak "ahots" izaerari eusten dio piezaren amaierara arte, koadro akustikoak, dinamikak eta testurak aldatzen

diren arren». Edonola ere, «*Hagi* soinuaren —instrumentu-identitatearen eta hibridazioaren alderdien— ikerkuntzaren barneko prozesu pertsonalaren parte da», egileak dioskunez.

Helmut Lachenmann

Trio fluido

Gaurko programak, egile gazte batzuen sorkariak dakarkigunak, aukera ematen du Helmut Lachenmann konpositoreak belaunaldi berrian zer-nolako itzala duen egiaztatzeko. Ia paradoxikoa da ikustea nola ia 1990eko hamarkadara arte erradikaltzat hartzen zuten Lachenmann XXI. mendeko «soinuaren» arkitekto nagusietako bat bihurtu den azkenerako: konpositore gazte askok haren lengoaiaren ezaugarriak bere egin dituzte, eta, esaterako, biolontxeloaren zubitik behera jotzea, klarinetari ahokorik gabe putz egitea, gitarraren erresonantzia-kutxa arraspatzea eta beste teknika asko, garai batean muturrekotzat hartzen zirenak, gaur egun naturaltasun osoz erabiltzen diren baliabideak dira; eskura dituzten hogeitaka tinbre-aukeretako bat. Hala ere, Lachenmannen «musika zehatz instrumentala» ez zen ezerezetik sortu: musika akusmatikoaren esentzia hartu zuen, eta oso harreman traumatikoa eduki zuen Luigi Nono maisuaren metodoaren eta ideia politikoen bitartez iragazi. Musika horren barnean dago,

halaber, estrukturalismoa, bai eta John Cage ere. Lachenmannek eta Cagek polemika garratz bat izan zuten 1959an, baina, gaur egun, alemaniar konpositorak Cagek berarengan izan zuen «eragin sakona» onartzen du. Baina beste ezein egile garaikidek ez zuen eraman ahal izan soinu instrumentalaren berrikuspena Lachenmannek bezain muturrera. «Hirurogeiko hamarraldia- ren amaieratik, zurruntasunez eraikitako ukapen batean datza nire musika, eta nire ustez gizartean aurretiaz sortu eta entzun nahi direnak baztertzen ditut» dio egileak.

«Mundu guztiak zekien zer zen *musique concrète*, gure eguneroko bizitzako elementuez joa, zinta batean muntatuak; eta nik gauza bera egin nahi nuen, baina gailuekin beharrean, instrumentuekin». Lachenmann ez zen lehena izan horrelako zerbait egitera ausartzen, baina hain erradikalki sistematikoa izan zen, eta soinu-emaitez hain liluragarriak, ezen bide zeharo bizi eta itzulerarik gabeko bat ireki baitzuen instrumentu akustiko tradizionalen erabilera zabalduan. Teknika horiek beraiek probokatzailak ziren berez: Frankfurtan 1969an Lukas Foss zuzendariak hortzez eta haginez defendatu behar izan zuen *Air*, Lachenmannen lehen orkestra-lana, pieza jo nahi ez zuen orkestraren eta entzule eskandalizatuen aurrean. Musikariak euren konfort-zonatik ateratzea eta publikoari desafio egitea mezu po-

litiko indartsu bat artikulatzeko modua zen, bai eta «musika eder» deituan babesten ziren balio burgesei eraso egiteko modu bat ere.

Trio fluido pieza *Air* obraren aurreko lana da juxtu, 1968an amaitu zuenez. Lan horretan, Lachenmann barne-bilaketan ari zen oraindik, Luigi Nonoren nortasun itzaltsutik askatzen nolabait, zeinak konposizioetan edozein baliabide tradizional, erritmo erregular edo kontsonantzia erabiltzea debekatu baitzion. Paco Yáñez-en arabera, «Lachenmannek, Nonoren musikaren oso zalea omen denak (“inoiz ezagutu dudan zerik handienetako bat”), dioenez, *Trio fluido* eta enparauak “aita hiltzeko” dira, alegia haren estetika- ren satellite soil ez bilakatzeko ahalegin: “*Trio fluido* debeku baten ondorio da: elementu batzuk erabiltzeko debekua jartzen dizutenean, irakasleak zer edo zer debekatu nahi dizunean, ez obeditu, bestela, zureak egin du”. Hala, elementu tradizional txiki batzuk erabilia, birtuosismoa, abiada edo bizitasuna (“bizitasun hila”, hori bai), klarinete, biola eta perkusiorako hirukote honen konposizioari ekin zion. Trantsizioko pieza zeritzon, lan horretan desagertzen hasi zirelako bere lengoia zaharraren elementuak; urtebete bakarrean, musika zehatz instrumentalarri bide eman zion, bere musika-ekoizpenaren eredutzat hartuta».

Julián Ávila

Quasicristal III

Valentzian jaio arren, Julián Ávilak Madrilen eta Gaztela-Mantxan hasi zuen prestakuntza-ibilbidea, eta Manchesterren eta Parisen jarraitu. Ávilak bi hiri horietan, Manchesterreko Unibertsitatearen NOVARS eta Paris-ko Ircam ikerketa-zentroetan zehazki, finkatu zituen bere interesak; aurreantzean, bere burua «konpositore eta soinu-artista» gisa aurkeztuko du, bere musikagintzaren ardatz izango baitira sonologia eta teknologia berriak. Diziplina horiek barne hartzen duten esparruaren zabala kontuan hartuta, Ávilak soinuaren dimentsio espaziala ikertzen duten proiektuetan jartzen du arreta, elektroakustikaren erabile-
ran eta beste arte-diziplinekin eginiko uztarketetan. Gaur gauean entzungo dugun obra, esaterako, Manchesterreko Unibertsitatean «difusio espektralari» eta «energia espektralari» buruz eginda duen ikerketaren barnean dago.

Cuasicristal III, kuasikristalen ideiarri buruzko ziklo bateko hirugarren obra da; alegia, naturan agertzen diren egitura errepikakor ez-periodikoei buruzkoa. Ávilaren hitzetan, «musikan errepikapenik ez dagoela esan ohi da. Edozein sekzio errepikatu bigarren aldiz entzuten dugunean, memoria sartzen da tartean, eta pertzepzioa eraldatzen du; hala, hotsa lehengo berbera izan arren,

desberdin aditzen dugu». *Cuasicristal III lanean*, Ávilak kuasikristalen antze-
ra antolatzen ditu aipatu egitura errepikakorrak, egituron geometriaren, musikaren denboratasunaren eta obraren harmonia-antolaketaren artean lotura bat ezarrita. Hala, «"difusio espektrala" maila instrumentalean aplikatzearen adibide bihurtzen da, eta kuasikristalen antzeko material musikal bat sortzen du, maiztasun jakin batzuk indartzen direna *burning frequencies* teknikaren bitartez».

Claude Lenners

Zenit

eta

Fausto Romitelli

Domeniche alla periferia dell'impero

Murail eta Lachenmann sortzaile «klasikoei» omenaldia egiteaz eta konposatzaile berriak aurkezteaz gain (Olivares, Ávila eta Estelche), United Instruments of Lucilin taldeak tarteko belaunaldiaren lagin bat sartu nahi izan du programan; bi *quasi*-miniatura, Claude Lenners (1956) eta Fausto Romitelli (1963) egileenak. Bi obra horiek, gainera, Italiarekin lotura dute.

Lehena, *Zenit*, flauta, biolin eta saxofoirako fantasia bat da. 1990ean idatzituen Lennersek, Erromako Villa Medicin artista-egonaldia egiten ari zela. Bertan sortu zuen sei minutu eskako konposizio hau, planteamendu

erraz bati tiraka: tentsio-pilaketa progresibo bat, gailurrera iritsi, eta desegiten dena. Idazkera kementsuarekin eta instrumentu-ahots desberdin baina esparru hurbilekoen arteko loturekin, tentsio gero eta gehiagoko mataza bat ehuntzen du, sekulako bertuosoak izatea eskatzen diena interpretatzaileei.

Domeniche alla periferia dell'impero (Ilgandeak inperioaren kanpoaldean) aldiz, azken urteetako konpositore italiar nagusietako batena da, Fausto Romitellirena. Italiarra zorigaiztoko minbizi baten erruz zendu zen 2004an 41 urte eskasekin. Hala ere, Romitellik nortasun berdingabe eta originaltasun handiko legatua utzi ahal izan zuen. Sarri interpretatzen dira haren lanak, eta *Domeniche alla periferia dell'impero* horien adibide ederra da. Lehen mugimendua, *Prima domenica*, 1996an estreinatu zen Parisen, Radio-Francen egoitzan, Alter Ego Ensembleren eskutik. Erabiltzen dituen lau instrumentuek (flauta baxuak, klarinete baxuak, biolinak eta biolontxeloak) konposizio elektronikoko eta musika amplifikatuetako baliabideak erabiltzen dituzte, eta aldaketak etengabeak eta progresiboak dira, eta entzuleak kulunkatzen dituzte aski era ilunean, ongizate (edo ondoez) sanezin bat eragiten duen kadentzian; «inperioaren kanpoaldean igande-pasa egitean bezala, eguna logaletsu doa, hasperen ilun batean, espero hutsean» (Alessandro Arbo).

Israel L. Estelche

Trayecto líquido

Israel L. Estelche 2014an egin zen ezagun, SGAE-CNDM Fundazioaren Konpositore Gazteentzako Sariaren 25. edizioa irabazi zuenean gaurkoan entzungo dugun obrarekin: *Trayecto líquido*. Ordutik hona, askotan sartu dute Espainiako musika garaikideko programazioetan eta harreman oso oparoak izan ditu Asturiasko Printzerriko Orkestra sinfonikoarekin edo Zaragozako OCAZENigma ensemblearekin, baita bakarlariekin ere, adibidez, Nikola Tanaskovicekin. Bere musikak, teknika ezinago dotorekoak, hedonismorako joera halako bat du, harmonia osoak, tinbre delikatuak eta ageriko melodismoa erabilita, eta horri esker erraz konektatzen du entzule askorekin. Estelche, gainera, ikerlaria da, eta hitzaldiak ematen ditu, XX. eta XXI. mendetako musikan eta musika-analisan espezializatuta egonda; bai, sendotasun teoriko handiko musikaria dugu.

Trayecto líquido, 2014koa, flauta, klarinete, biolin, biola, biolontxelo, piano eta perkusiorako zazpikotea, lau sekziotan antolatuta dago, eta horietan «keinu edo elementu errepikatuen sorta bat agertu eta garatzen da, etengabeko aldaketan, formari kohesioa eman eta entzulearen entzumena gidatzeko», diosku konpositoreak. «Bestalde, bos-

tun bitartekoa nagusitzen den ibilbide harmoniko bat sortzen da. Bitarteko horiek itxuragabetuta agertuko dira *glissandi* txiki baina gero eta handiagoei esker, proposamena hieratikoa izan arren, harmonia-ibilbide bizia eskaintzeko». Obran modu intentsiboan erabiltzen da erresonantzia «instrumentuek, tinbre-bereizgarri askotarikoak lituzkeen elementu bakar bat osatuko balute bezala, elkarri eragiteko». Elementu ezin hobeto neurtu eta orekatuen batasun horrek erritu kutsuko soinu-giro bat sortzen du, denbora eten batean airean geratuta lirudikeena.

Mikel Chamizo

United Instruments of Lucilin



United Instruments of Lucilin musika garaikideko taldea 1999an sortu zuen zenbait musikari grinatsuk eta konprometituk. Musika garaikidean espezializatutako Luxenburgoko ganbera-musikako talde honek xx. eta xxi. mendeetako obrak bakarrik sustatzen eta enkargatzen ditu, eta hori egiten duen bakarra da. Mundu osoan da ezaguna programazio-proposamen bikainengatik.

Berrogei bat kontzertu ematen ditu urtean, eta askotariko musika-ekitaldiak eskaini ohi ditu; tartean, emanaldi «tradizionalak», antzerki musikaleko produkzioak, haurrentzako proiektuak, inprobisazio-saioak eta eztabaidak konpositoreekin.

Luxenburgoko Antzoki Nagusiarekin elkarlan estuan aritzen da opera garaikidearen esparruan eta antzerki musikaleko proiektuetan, eta honako hauek estreinatu ditu, besteak beste: Toshio Hosokawaren *The Raven* monodrama, Charlotte Hellekantekin; Philippe Manouryren *Kein Licht* thinkspiela, Nicolas Stemannen zuzendaritza eszenikoarekin; eta, berriki, Adam Maorren *The Sleeping Thousand* opera (Aix-en-Provenceko jaialdian estreinatu zen, 2019ko uztailean).

Luxembourg Composition Academy antolatzen du urtero, Neimënster eta Rainy Days jaialdiekin batera. Luxenburgon egiten den konposizioko eskola magistral bakarra da, eta zortzi konpositore gazteri pieza berri batean lan egiteko aukera ematen die.

Urteak pasatu ahala, gero eta entzule grinatsu gehiago ditu, eta musika-adierazpen berritzaileak sustatu ditu, esaterako, *Black Mirror*, Alexander Schuberti enkargatutakoa. Abandonatutako hotel batean gertatzen den murgilketa-esperientzia bat da, eta 2016an estreinatu zen Philharmonie Luxembourgen —taldearen beste bazkide nagusietako bat— Rainy Days jaialdian.

Obra berrien enkarguak egin berri dizkie Aurélio Edler-Copesi, José Luis Valdivia Ariasi, Francisco Alvaradori eta Clara Olivaresi.

Hurrengo kontzertuak

Musika Garaikideko X. Kontzertua Zikloa BBVA Fundazioa

BBVA Fundazioa • San Nikolas plaza, 4. Bilbao • 19:30 h

2020 | 03 | 31

Trio Catch

Isabel Mundry, Gérard Pesson, Dai Fujikura, Mikel Urquiza eta Irene Galindo Quero-ren lanak

2020 | 04 | 21

Alberto Rosado (pianoa eta elektronika)

Iñaki Estrada, Aurélio Edler-Copes, Manuel Martínez Burgos, Raquel García-Tomás, Gustavo Díaz-Jerez, Carlos D. Perales eta Jonathan Harvey-ren lanak

2020 | 05 | 05

Trio Accanto

Georges Aperghis, Johannes Schöllhorn, Ramon Lazkano eta Mikel Urquiza-ren lanak

